

En la Casa Consistorial del M. I. Ayuntamiento de Auritz/Burguete siendo las 20,00 horas del día 7 de octubre de 2025, se reunió el Ayuntamiento al objeto de celebrar sesión ordinaria con la asistencia de los Sras./es. Concejalas/es, Dª. Ana Azanza Burusco, Dª. Andrea Juandeaburre Serna, D. Eder Martínez de Miguel y D. José Irigaray Gil, bajo la presidencia del alcalde D. Unai Irigaray Osés, actuando como Secretaria de la Corporación Doña Marisol Ezcurra Irure.

**1.- APROBACIÓN DE LAS ACTAS DE SESIÓN DE 16 DE JUNIO, 11 DE JULIO, 23 DE JULIO Y 29 DE AGOSTO DE 2025.**

La Corporación acuerda por unanimidad, aprobar las actas de sesión de 16 de junio y 11 de julio de 2025, dejando sobre la mesa la aprobación de las restantes.

**2. CONOCIMIENTO DE RESOLUCIONES DE ALCALDÍA EMITIDAS DESDE EL 14 DE JUNIO HASTA EL 3 DE OCTUBRE DE 2025.**

Informa el alcalde Sr. Irigaray Oses, del contenido de las Resoluciones de Alcaldía desde el 14 de junio hasta el 3 de octubre de 2025, que constan en el expediente de la sesión, dándose los miembros de la Corporación por enterados.

En relación con la resolución 120 de 22 de agosto, sobre apoyo al manifiesto “*J'accuse*”, tal y como viene en la misma, se da cuenta en el pleno y se transcribe íntegra a continuación:

*Vista solicitud de apoyo al manifiesto “J'accuse”, que se transcribe a continuación, para dar apoyo a las 7 personas encausadas por facilitar el paso de 36 migrantes en el contexto de “Korrika”.*

*RESUELVO:*

- *Suscribir íntegramente dicho manifiesto y adherirse al mismo.*
- *Dar cuenta al pleno del Ayuntamiento de Auritz/Burguete.*

**3.- ACUERDO PARA LA PRESENTACIÓN DE ENMIENDA A LOS PRESUPUESTOS GENERALES DE NAVARRA.**

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray Oses el cual propone presentar una enmienda a los presupuestos Generales de Navarra 2026 con el fin de poder iniciar la actuación de transformación de las casas de los maestros en vivienda social. Se pretende actuar en la cubierta que se halla en pésimo estado para poder acometer a posteriori las acciones de adecuación del interior. A continuación, da lectura al siguiente texto que se transcribe a continuación:

*A la atención de los grupos parlamentarios del Parlamento de Navarra,*

*“La despoblación es uno de los grandes retos actuales que tiene Navarra; el vaciado de las zonas rurales, la masificación de las urbes y los grandes desequilibrios sociales y demográficos que esto genera es sin duda uno de los problemas urgentes a los que se enfrenta la sociedad navarra en la actualidad y por ello sus representantes políticos.*

*Auritz/Burguete, al igual que el resto de pueblos y valles del Pirineo navarro, no es ajena a esta situación y hemos visto cómo en este cuarto de siglo ha perdido el 30% de su población, según datos oficiales. La situación es crítica y nos exige actuar de manera urgente en diferentes ámbitos para poder hacerle frente a la despoblación, que como tal no es un problema en sí, sino que es el síntoma de diversos problemas; la pérdida de servicios, el empeoramiento de las comunicaciones, la falta de vivienda, falta de empleo, cambios sociales etc. Uno de los ejemplos más dolorosos de esta situación ha sido el cierre de la escuela local, debido a la falta de niños y niñas ya que en la última década no ha existido ningún nacimiento en nuestra villa.*

*No obstante, Auritz/Burguete sigue siendo un pueblo joven que mira al futuro con ilusión y ejemplo de ello e, que, a diferencia de hace una década, en la que la mayoría de la juventud emigró a Pamplona, en la actualidad son más de 30 jóvenes de entre 20 y 35 años los que han apostado por vivir aquí y comenzar a establecer sus proyectos de vida en el territorio. Entre estas personas se encuentran 7 personas que en la actualidad residen en los pisos del Ayuntamiento gestionados en la actualidad por Nasuvinsa entre las que se encuentran tres parejas jóvenes con proyectos de vida y de futuro, lo que nos muestra la efectividad de los pisos de alquiler social dirigidos a jóvenes en ámbitos rurales como el nuestro.*

*Desde el Ayuntamiento de Auritz/Burguete consideramos que éste es un buen ejemplo en el que tenemos que seguir trabajando aún más para seguir afincando a la población joven en la localidad. Por todo ello, tenemos encima de la mesa un proyecto que consideramos estratégico, el cual consiste en la realización de tres viviendas de alquiler social dirigidas a jóvenes que asciende a 700.000 euros. Dada la difícil situación económica en la que nos encontramos, así como la poca capacidad de las entidades locales del ámbito rural de llevar a cabo proyectos de tal envergadura, nos vemos obligados a realizar una primera fase del proyecto a la que denominamos “cubierta escuela maestros” con la que renovaremos la cubierta del edificio en el que se establecerán las tres viviendas. Es una actuación de gran importancia ya que la cubierta se encuentra en una situación crítica con la entrada de agua y problemas en la estructura. Será imposible continuar con el proyecto de tres viviendas mientras no se acometa esta primera fase.*

*Por todo ello, solicitamos a los grupos parlamentarios que impulsen una enmienda nominativa en los Presupuestos Generales de Navarra del 2026 a favor del Ayuntamiento de Auritz/Burguete por la cantidad de 163.876,29 euros para la realización del proyecto “Cambio de cubierta de edificación municipal. Edificio de Escuelas Municipales en Auritz/Burguete”. “*

Toma la palabra el concejal Sr. Irigaray Gil que propone que la propuesta planteada por el alcalde Sr. Irigaray Osés, se traslade a todos los grupos con representación parlamentaria excepto a Vox. La corporación estando de acuerdo con lo expresado por el Sr. Irigaray Gil,

acuerda por unanimidad aprobar la solicitud de enmienda planteada por el alcalde, remitiéndola a todos los grupos con representación parlamentaria excepto a Vox.

#### **4. ACUERDO PARA PARTICIPAR EN LA FUTURA AECT KINTONDARE Y APORTACIÓN A LOS FUTUROS ESTATUTOS DE LA ASOCIACIÓN.**

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray Oses, quien informa que junto con el concejal señor Martínez acudieron a una reunión el pasado 18 de septiembre celebrada en Urepel con el fin de sentar las bases y tener mayor información sobre la creación de esta nueva institución de carácter interregional que incluiría en la Alta Navarra a los valles de Baztan, Esteribar y Erro y los ayuntamientos de Luzaide/Valcarlos y Auritz/Burguete y en la parte de la Baja Navarra al sindicato de Baigorri. Se trata de la creación de una institución que hoy en día está potenciada por la política europea y que trabajará en proyectos comunes del territorio. La creación de la misma será gestionada por la empresa Kaizen tal como se acordó en esa reunión.

Dado que hay que aprobar la adhesión a la misma para poder presentarlo en el organismo correspondiente propone aprobar la adhesión que figuran en el expediente de la sesión, así mismo y estudiado el borrador de presupuestos que regulará dicha asociación propone validar dicho borrador.

La Corporación acuerda por unanimidad la adhesión de Auritz/Burguete a la AECT y la validación del borrador de estatutos presentado.

#### **5. ADJUDICACIÓN OBRAS RENOVACION PAVIMENTACIÓN CALLE RONCESVALLES FASES I Y II.**

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray Oses, que tras la licitación de las obras de “Renovación Pavimentación Calle Roncesvalles Fase I y Fase II de Auritz/Burguete”, informa que se han presentado dos ofertas por parte de XCAVA OBRAS Y SERVICIOS, S.L., y de ERKI CONSTRUCCION SOSTENIBLE S.L. y que tras informe del redactor de proyecto Sr. Guallart y valoraciones realizadas, la Mesa de Contratación, propone al pleno, la contratación de la empresa de construcción ERKI CONSTRUCCION SOSTENIBLE S.L. para la realización de las obras del proyecto de “Renovación Pavimentación Calle Roncesvalles Fase I y Fase II de Auritz/Burguete” por la cantidad de ciento noventa y cinco mil seiscientos cuarenta y siete euros con sesenta y cuatro céntimos (195.647,64 € IVA excluido) más IVA.

La Sr. Secretaria informa a la corporación que dado el incremento del coste de la obra habrá que tomar un préstamo bancario para hacer frente a la misma.

Revisado el expediente y el acta de la mesa de contratación, la Corporación acuerda por unanimidad aceptar la propuesta formulada por la Mesa de Contratación y adjudicar a ERKI CONSTRUCCION SOSTENIBLE S.L. la contratación de las obras del proyecto de “Renovación Pavimentación Calle Roncesvalles Fase I y Fase II de Auritz/Burguete” por la cantidad de ciento noventa y cinco mil seiscientos cuarenta y siete euros con sesenta y cuatro céntimos (195.647,64 € IVA excluido) más IVA.

Previo a la formalización del contrato, deberá presentar la documentación exigida en la cláusula 13 del pliego de condiciones.

Así mismo se acuerda estudiar la petición de un crédito para hacer frente a la misma.

## **6. ACUERDO ADJUDICACIÓN OBRAS DE RESTAURACIÓN DEL PERÍMETRO OESTE DEL RECINTO AMURALLADO DE AURITZ/BURGUETE.**

Informa el alcalde Sr. Irigaray Oses que, publicado en el portal de contratación el proyecto redactado para la recuperación de las antiguas defensas y su puesta en valor, ha presentado oferta Construcciones Leache por un importe de 764.288,67€ IVA excluido y cumpliendo los requisitos propone adjudicar la obra a esta empresa.

Toma la palabra el concejal Sr. Irigaray Gil que propone incrustar en la misma una "cápsula del tiempo" que incluyese por lo menos el inventario de piedra de 1877 del entonces alcalde Miguel María Masso y los acuerdos tomados al respecto en sesiones de 24 de enero de 2023 y los de 28 de febrero y 7 de octubre de 2025, relativos a las adjudicaciones de la redacción del proyecto y realización de las obras. Propone estudiar la posibilidad de sacar los árboles frutales afectados o la restitución a futuro de los mismos.

Informa la Sra. Secretaria, como interventora que es, que dado que aún no se ha recibido el dinero, el contrato se firmará cuando la cuantía económica haya sido traspasada a la cuenta del Ayuntamiento.

La Corporación acuerda por unanimidad adjudicar la obra de ejecución y puesta en valor del recinto defensivo de Auritz/Burguete a Construcciones Leache por un importe de 764.288,67€ IVA excluido y llevar a cabo la firma del contrato una vez recibido el importe desde el ministerio de Industria y Turismo.

## **7. ADJUDICACIÓN OBRAS MEJORA DE EFICIENCIA ENERGÉTICA, BAR DE FRONTON - AURITZ/BURGUETE.**

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray Oses, que informa que, la Mesa de Contratación estudiadas las ofertas para las acciones de mejora del aislamiento y eficiencia energética del frontón contempladas en el proyecto que se financia con la enmienda de EH Bildu y Geroa Bai, aprobada en los presupuestos Generales de Navarra de 2025, presentadas por Leache y Bengotxea, resulta que la mejor oferta es de Bengotxea S. L. por lo que durante el mes de noviembre se llevarán a cabo las obras. Que en previsión de que no se puedan acabar en plazo el director general de despoblación Jesús Mari Rodríguez ha asegurado que habrá prórroga y no será ningún problema. Así mismo, quiere dejar constancia también del agradecimiento a estos dos grupos parlamentarios que propusieron con sus fondos la enmienda.

A la vista de lo cual, la Corporación acuerda por unanimidad ratificar la propuesta presentada por la Mesa de Contratación, adjudicando a Construcciones A. Bengotxea las obras de mejora del aislamiento y eficiencia energética del frontón, por la cantidad de 58.522,00 €, más IVA.

## **8. ACUERDO PARA PARTICIPAR EN LA ELABORACIÓN DE UN PLAN DIRECTOR ENTORNO A LA CALZADA ROMANA.**

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray Oses, que informa que el pasado 25 de septiembre se celebró una reunión entre Cederna, asociación de turismo y las entidades locales que

atraviesa la calzada romana en la que Cederna propuso un plan director para desarrollar este tema histórico. Desde el Ayuntamiento se remarcó el trabajo de muchos años que está haciendo la Sociedad de Ciencias Aranzadi al respecto y se acordó que fuese Aranzadi quien gestionase el proyecto.

Se acuerda por unanimidad trasladar a Cederna la conformidad de adhesión al proyecto.

Fuera del orden del día y estando todos los corporativos de acuerdo, se incluye el siguiente punto.

### **APROBACIÓN DEFINITIVA DE LA PLANTILLA ORGÁNICA 2025.**

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray Oses que informa que aprobada inicialmente la plantilla orgánica en sesión de 7 de abril de 2025 y publicada en el Boletín Oficial de Navarra nº 129 de 30 de junio de 2025, no se han presentado alegaciones por lo que procede su aprobación definitiva.

La Corporación acuerda por unanimidad la aprobación definitiva de la plantilla orgánica de 2025 que se transcribe íntegra a continuación:

#### ***PLANTILLA ORGÁNICA 2025***

##### ***Relación de puestos de trabajo***

###### ***Personal funcionario.***

Denominación del puesto: empleado de servicios múltiples. Número de plazas: 1. Forma de provisión: concurso-oposición. Euskera. Perfil lingüístico B2. Nivel: E. Condiciones de ejercicio: activo. Complemento de nivel: 15%. Complemento de puesto de trabajo: 15,77%. Jornada completa.

###### ***Relación nominal***

Empleado de servicios múltiples: Jesús Román Pedroarena Etulain.

Euskera. Perfil lingüístico B2

###### ***Personal laboral fijo.***

Denominación del puesto: oficial administrativo. Número de plazas: 1. Forma de provisión: concurso-oposición. Euskera. Perfil lingüístico B2. Nivel: C. Condiciones de ejercicio: activo. Complemento de nivel: 12%. Complemento de puesto: 28,35%. Jornada: 28,56%.

Denominación del puesto: oficial administrativo. Número de plazas: 1. Forma de provisión: concurso-oposición. Euskera. Perfil lingüístico B2. Nivel: C. Condiciones del ejercicio: activo. Complemento de nivel: 12%. Complemento de puesto: 28,35%. Jornada: 28,56%.

Denominación del puesto: empleado de servicios múltiples. Número de plazas: 1. Forma de provisión: concurso-oposición. Nivel: E. Condiciones del ejercicio: activo. Complemento de nivel: 15%. Complemento de puesto de trabajo: 8,77%. Jornada: 35%.

Denominación del puesto: técnico de euskera. Número de plazas: 1. Forma de provisión: concurso-oposición. Euskera Perfil Lingüístico C1. Nivel: B. Condiciones del ejercicio: activo. Complemento de puesto: 20%. Jornada completa.

***Personal fijo en régimen laboral.***

Oficial administrativa: Ana Isabel Erneta Erro.

Oficial administrativa: María José Garralda Zubiri.

Empleado de servicios múltiples: Cristina Carra García.

Técnico de euskera: Teresa Iribarren Larrea.

Servicios agrupados con los Ayuntamientos de Orreaga / Roncesvalles y Valle de Erro.

Denominación del cargo: secretaria. Número de plazas: 1. Forma de provisión: concurso-oposición. Euskera Perfil Lingüístico C1, Nivel: A. Complementos puesto de trabajo: 40%. Incompatibilidad: 35%. Jornada completa.

***Personal contratado en régimen administrativo.***

Ezcurra Irure, M.<sup>a</sup> Soledad. Secretaria interina. Situación: activo. Antigüedad: 11 de junio de 2012.

**9.- INFORMACIÓN VARIA.**

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray Oses que informa los siguientes temas:

**Fiestas**

Que del 20 al 24 de junio se celebraron las fiestas patronales de la villa en las que el buen ambiente y la alta participación del vecindario en las diferentes actividades fue lo más destacado. Agradecer de forma especial la implicación de la juventud y muy en especial de los mayordomos y mayordomas que con su trabajo sacaron las fiestas adelante.

La Corporación se da por enterada.

**Cierre Ikastola**

Que el pasado 22 de junio se realizó un acto para el cierre de la escuela en el que participaron alumnos/as, exalumnos/as, profesorado y exprofesorado vinculado a nuestra ikastola. El acto consistió en una intervención por parte de diferentes exalumnos y una foto de familia que tenemos que decidir como difundirla al vecindario.

La Corporación se da por enterada.

**Subvención iluminación frontón.**

Que se ha denegado la subvención solicitada al Gobierno de Navarra por parte del Ayuntamiento por valor de 21737 euros para el cambio de la iluminación del Frontón Josta-Leku debido a su mal estado y en aras a avanzar hacia una iluminación más verde. Desde el Ayuntamiento se trabajará por conseguir otra subvención para realizar esta actuación necesaria.

La Corporación se da por enterada.

#### **Adjudicación lotes**

Que el pasado día 4 de julio se adjudicaron los lotes de leña de hogar mediante sorteo en la casa consistorial. En total se han adjudicado 52 lotes, 27 con la modalidad de maderista y 25 en la modalidad de sin maderista.

La Corporación se da por enterada.

#### **Subvención euskera**

Que se ha publicado por segundo año la subvención para el apoyo del estudio de euskera de la población adulta por parte del Ayuntamiento habiendo en total 3 solicitudes que se estudiarán para su adjudicación.

La Corporación se da por enterada.

#### **Mesa del Pirineo**

Que se está trabajando en la elaboración de los presupuestos generales de Navarra vinculados al plan del pirineo y al igual que el año pasado se ha apostado por partidas relacionadas con el impulso del primer sector, la vivienda y los cuidados. Se puede avanzar que el presupuesto será superior al año pasado por lo que se da un nuevo impulso al Plan del Pirineo.

La Corporación se da por enterada.

#### **Ciclo 1525**

Que ha concluido el proyecto Auritz 1525-2025 que se ha desarrollado desde el 1 de febrero al 21 de septiembre de este año. Cabe destacar la alta participación en todas las acciones previstas en el proyecto, así como la participación social y la recuperación y la puesta en valor de la historia local.

La Corporación se da por enterada.

#### **PSTD**

Que se ha finalizado las actuaciones previstas en el Plan de Sostenibilidad Turística en Destino con la mejora de la envolvente de la Casa de Cultura. Debido a que dicho PSTD “PIRINEO” se está ejecutando en menor medida y en previsión de aprovechar los fondos remanentes, se plantearán medidas de mejora en la casa de cultura tales como la mejora de las puertas, iluminación y calefacción.

La Corporación se da por enterada.

#### **Trabajadores periodo estival**

Que durante los meses de verano han trabajado para este Ayuntamiento Lidia Urtasun Beaumont, dentro del programa Sustraiak de la UPNA como ayudante de secretaría y Markel Pedroarena Garralda como empleado de servicios múltiples dentro del programa de personas desempleadas. Agradecer los trabajos realizados a las dos personas y desearles suerte en sus futuros laborales.

La Corporación se da por enterada.

#### **Mugas con Aurizberri/Espinal**

Que el próximo sábado, día 11 de octubre, junto con el concejo de Aurizberri/Espinal se ha convocado el reconocimiento de mugas entre las dos localidades y en la que participará una representación de esta Corporación.

La Corporación se da por enterada.

#### **Dersbroces de Lindus**

Que el pasado día 17 de septiembre recibí la llamada de Pablo Erro, de ZIBUR SL, adjudicatario de las obras de desbroce introducidas en el proyecto de Actuaciones Forestales de este ejercicio para informarme de que le iba a ser imposible realizarlas. Tras haber valorado las diferentes opciones y teniendo en cuenta las fechas en las que estamos, temporada de palomeras, se ha acordado con el efectuar la obra el año que viene en las mismas condiciones económicas en las que se pactó sin que ello suponga un incremento de los costes para este Ayuntamiento.

La Corporación se da por enterada.

#### **Bertsozale**

Que el pasado día 4 de octubre dio comienzo el campeonato de Bertsolaris de Navarra del año 2025 en Auritz/Burguete y para ello contó con una subvención del Ayuntamiento que ha ascendido a 900 euros.

La Corporación se da por enterada.

#### **Palestina**

Que el pasado día 6 de septiembre esta corporación adhiriéndose a la plataforma Gernika-Palestina convocó una concentración en apoyo al pueblo palestino y en contra del genocidio que está perpetrando el estado de Israel. Aprovecho esta ocasión para volver a condenar el genocidio y mostrar el apoyo al pueblo palestino y revindicar los derechos humanos tal y como se hizo en acuerdo de pleno.

La Corporación se da por enterada.

#### **Señalítica Zaldúa**

Que tras la fructífera campaña de excavación llevada a cabo por parte de la Sociedad de Ciencias Aranzadi, el pasado 12 de septiembre se mantuvo una reunión las dos partes con la Sección de Arqueología del Gobierno de Navarra para realizar la consolidación de las ruinas y se aprovechará para señalizar desde el casco urbano hasta el yacimiento.

La Corporación se da por enterada.

#### **Ferias**

Que el pasado día 21 de septiembre se celebró la tradicional feria de Septiembre en la que participaron ganaderos locales, la participación fue elevada a pesar de la mala climatología. La jornada finalizó con una comida de hermandad entre el sector y la Corporación.

La Corporación se da por enterada.

#### **Servicio de Igualdad**

Que parte de la corporación nos hemos reunido con la técnica del servicio de igualdad en la que se ha tratado las condiciones de entrada al servicio, las acciones que se desarrollan en él y la posibilidad de participación en el mismo. Se estudiará la cuestión y en la próxima sesión ordinaria se debatirá la propuesta de entrar en dicho servicio.

La Corporación se da por enterada.

Se le concede la palabra al concejal Sr. Irigaray Gil, informa lo siguiente:

Toma la palabra el concejal Sr. Irigaray Gil que informa de las gestiones realizadas con el arquitecto Sr Echeverri Tapia para el aislamiento de la zona trasera del escenario de la casa de cultura ya que existe remanente para ello. El alcalde Sr. Irigaray Osés responde que también hay posibilidad de renovar las luces del edificio y que se propondrá al comité la renovación del alumbrado del frontón para mejora de la eficiencia energética.

## **10.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

No se formulan.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 20:30 h. del mismo día, se levanta la sesión, de lo que doy fe.

Aurizko Udaletxean, 2025eko urriaren 7ko 20:00etan, Udala bildu zen ohiko bilkura egiteko. Bertaratuak: Eder Martínez de Miguel, José Irigaray Gil, Andrea Juandeaburre Serna eta Ana Azanza Burusco zinegotziak, bilkura buru alkatea, Una Irigaray Osés izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

### **1.- 1.- 2025eko EKAINAREN 16ko, UZTAILAREN 11ko, UZTAILAREN 23ko ETA ABUZTUAREN 29ko BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA**

Ez ohiko bilkuraren aktari dagokionez, Ana Beaumont dioenean Ana Urtasun Beaumont jarri behar duela argitu da.

Udalbatzak erabaki du aho batez ekainaren 16ko eta uztailaren 11ko aktak onartzea eta gainerakoak onartzeke uztea.

### **2. 2.- 2025eko EKAINAREN 14tik URRIAREN 3a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA**

Irigaray Osés alkateak 2025eko ekainaren 14tik urriaren 3ra eman dituen ebazapnen gaineko informazioa eman du, horiek bilkurako expedientean daude eta udalkide guztiak jakitun dira.

“J'accuse” manifestuari babesia emateari buruzko abuztuaren 22ko 120. ebazapnenari dagokionez, bertan jasotzen den bezala, osoko bilkurari ematen zaio horren berri, eta jarraian osorik transkribatzen da:

“Korrika” testuinguruan 36 migratzaileri bidea errazteagatik auzipetutako 7 pertsonei babesia emateko, jarraian transkribatzen den “J'accuse” manifestua babesteko eskaera ikusita.

*EBATZI DUT:*

- *Adierazpen hori oso-osorik sinatzea eta hari atxikitzea*
- *Aurizko osoko bilkurari horren berri ematea.*

### **3.- NAFARROAKO AURREKONTU OROKORREI ZUZENKETA AURKEZTEKO ERABAKIA**

Irigaray Osés alkate jaunak hartu du hitza eta 2026ko Nafarroako Aurrekontu Orokorreia zuzenketa bat aurkeztea proposatu du, maisu-maistren etxebizitza sozial bihurtzeko

jarduerari ekin ahal izateko. Oso egoera txarrean dagoen estalkian lan egin nahi da, barrualdea egokitzeko lanak gerora egin ahal izateko. Ondoren, honakoa irakurri du:

***Nafarroako Parlamentuko taldeei,***

*Despopulazioa da Nafarroak gaur egun duen erronka handienetako bat; landa-eremuak hustea, hiriak masifikatzea eta horrek sortzen dituen desoreka sozial eta demografiko handiak dira, zalantzak gabe, gaur egun nafar gizartea –eta, beraz, haren ordezkaripolitikoek– aurre egin behar dien premiazko arazoetako bat.*

*Auritz, Nafarroako Pirinioetako beste herri eta bailara guztiak bezala, ez dago egoera horretatik kanpo eta ikusi dugu mende laurden honetan biztanleen %30 galdu duela, datu ofizialen arabera. Egoera kritikoa da, eta premiazkoa da hainbat arlotan jardutea despopulazioari aurre egin ahal izateko. Despopulazioa, berez, ez da arazo bat, baizik eta hainbat arazoren sintoma: zerbitzuen galera, errepideen okertzea, etxebizitza falta, enplegu falta, aldaketa sozialak, etab. Egoera honen adibide mingarrienetako bat herriko eskolaren itxiera izan da, haur falta dela eta, azken hamarkadan ez baita haurrik sortu gure herrian*

*Hala ere, Auritz herri gaztea da oraindik, eta etorkizunari ilusioz begiratzen dio. Horren adibide da, duela hamarkada bat ez bezala, non gazte gehienak Iruñera joan baitziren, gaur egun 20 eta 35 urte bitarteko 30 gazte baino gehiago direla hemen bizitzeko eta beren bizi-proiektuak lurraldean ezartzen hasteko apustua egin dutenak. Pertsona horien artean, gaur egun Nasuvinsak kudeatzen dituen Udalaren etxebizitzetan bizi diren 7 pertsona daude. Horien artean, bizi- eta etorkizun-proiektuak dituzten hiru bikote gazte daude. Horrek erakusten digu zenbateraino diren eraginkorrik gazteei zuzendutako alokairu sozialeko pisuak gurea bezalako landa-eremuetan.*

*Aurizko Udalean uste dugu hau adibide ona dela, eta lanean jarraitu behar dugula gazteak herrian finkatzeko. Horregatik guztiagatik, estrategikotzat jotzen dugun proiektu bat dugu mahai gainean: gazteentzako alokairu sozialeko hiru etxebizitza egitea, 700.000 euroko kostuarekin. Gaur egun bizi dugun egoera ekonomiko zaila dela eta, eta landa-eremuko toki-erakundeek tamaina horretako proiektuak egiteko ahalmen txikia dutela kontuan hartuta, proiektuaren lehen fase bat egin behar dugu, “maisu-maistren eskolako estalkia” deitzen dioguna. Horrekin, hiru etxebizitzak eraikiko diren eraikinaren estalkia berrituko dugu. Garrantzi handiko jarduera da, estalkia egoera larrian baitago ura sartzen delako eta egiturazko arazoak dituelako. Ezinezkoa izango da hiru etxebizitzaren proiektuarekin jarraitzea lehen fase honi ekiten ez zaion bitartean.*

*Horregatik guztiagatik, talde parlamentarioei eskatzen diegu 2026ko Nafarroako Aurrekontu Orokoretan zuzenketa izendun bat bultzatela Aurizko Udalaren alde, 163.876,29 eurokoa, “Udal eraikinaren estalkia aldatzea. Udal Eskolen eraikina Auritzten”. “*

Irigaray Gil zinegotziak hartu du hitza eta Irigaray Oses alkateak egindako proposamena Legebiltzarrean ordezkaritza duten talde guztiei helaraztea proposatu du, Voxi izan ezik. Udalbatzak, Irigaray Gil jaunak adierazitakoarekin bat etorri, aho batez onartu du alkateak proposatutako zuzenketa-eskaera, eta Legebiltzarrean ordezkaritza duten talde guztiei bidaliko zaie, Voxi izan ezik

#### **4. ETORKIZUNEKO KINTONDARE MGLEE ELKARTEAN PARTE HARTZEKO ERABAKIA ETA EGINGO DIREN ESTATUTUEN EKARPENA**

Irigaray Oses alkate jaunak hartu du hitza, eta adierazi du Martínez zinegotziarekin batera Urepelera joan zela irailaren 18an egindako bilera batera. Bileraren helburua zen oinariak finkatzea eta informazio gehiago izatea erregioen arteko izaera izango zuen instituzio berri baten sorrerari buruz, eta horretan sartuko liratekeela Nafarroa Garaiko Baztan, Esteribar eta Erroibar eta Luzaide eta Aurizko udalak eta Nafarroa Behereko Baigorriko sindikatua. Europako politikak bultzatutako erakunde bat sortzea da asmoa, lurraldeko proiektu komunetan lan egingo duena. Haren osaera Kaizen enpresak kudeatuko du, bileran esan bezala.

Bilkurari atxikitzea onetsi behar denez dagokion erakundean aurkeztu ahal izateko, bilkuraren espedientearen agertzen den atxikipena onestea proposatu du. Era berean, elkarte hori arautuko duen aurrekontu-zirriborroa aztertu ondoren, zirriborroa balioztatzea proposatu du.

Udalbatzak erabaki du aho batez Aurizko Udala MGLEEri atxikitzea eta aurkeztutako estatutuen zirriborroa onestea.

#### **5. ORREAGA KARRIKAKO ZOLADURA BERRITZEKO LANAK ADJUDIKATZEA. I ETA II FASEAK.**

Irigaray Oses alkate jaunak hartu du hitza, eta “Orreaga kaleko zoladura berritza, Aurizko I. fasea eta II. fasea” lanak lizitatu ondoren, jakinarazi du bi eskaintza aurkeztu direla: XCAVA OBRAS Y SERVICIOS, S.L.k eta ERKI CONSTRUCCION SOSTENIBLE S.L.k. Guallart jaunaren, proiektuaren erredaktoreak, txostenaren eta egindako balorazioen ondoren, Kontratazio Mahaiak osoko bilkurari proposatu dio ERKI CONSTRUCCION SOSTENIBLE S.L. eraikuntza-enpresa kontratatzea. “Orreaga kaleko zoladura berritza, Aurizko I. fasea eta II. fasea” proiektuko obrak egiteko: ehun eta laurogeita hamabost mila seiehun eta berrogeita zazpi euro eta hirurogeita lau zentimo (195.647,64 €) gehi BEZa. Idazkariak jakinarazi dio udalbatzari, obraren kostuaren igoera dela eta, banku maileguak hartu beharko duela obrari aurre egiteko.

Kontratazio-mahaiaren espedientea eta akta berrikusi ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du Kontratazio Mahaiak egindako proposamena onartzea eta “Orreaga kaleko zoladura berritza, Aurizko I. fasea eta II. fasea” proiektuko obren kontratazioa ERKI CONSTRUCCION SOSTENIBLE S.L.ri esleitzea, ehun eta laurogeita hamabost mila seiehun eta berrogeita zazpi euro eta hirurogeita lau zentimoan (195.647,64 €), gehi BEZa. Kontratua sinatu aurretik baldintza agiriaren 13. klausulan ezarritako dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Modu berean obrari aurre egiteko kredituaren eskaera aztertza erabaki da.

## **6. AURIZKO HARRESI-BARRUTIAREN MENDEBALDEKO PERIMETROA BERRITZEKO OBRAK ESLEITZEKO ERABAKIA**

Irigaray Oses alkateak jakinarazi du, kontratacio atarian harresi zaharrak berreskuratzeko eta horiei balioa emateko idatzitako proiektua argitaratu ondoren, Construcciones Leache enpresak eskaintza aurkeztu duela, 764.288,67 €-koa, BEZik gabe. Baldintzak betetzen dituela kontuan hartuta, obra enpresa honi esleitzea proposatu du

Irigaray Gil zinegotzi jaunak hartu du hitza, eta proposatu du "denboraren kapsula" bat sartzea bertan, gutxienez, orduko alkate Miguel María Massoren 1877ko harrizko inventarioa eta horri buruz 2023ko urtarrilaren 24ko eta 2025eko otsailaren 28ko eta urriaren 7ko bilkuretan hartutako erabakiak, proiektua idazteko eta obrak egiteko adjudikazioei buruzkoak. Kaltetutako fruta-arbolak ateratzeko edo etorkizunean berriz jartzeko aukera aztertzea proposatu du.

Idazkariak, kontu-hartzaile gisa, jakinarazi du oraindik dirurik jaso ez denez, Udalak dirua kontuan jasotzen duenean kontratua sinatuko dela.

Udalbatzak aho batez erabaki du Construcciones Leacheri esleitzea Aurizko defentsa-barrutia egikaritzeko eta hari balioa emateko obra, 764.288,67 €-an (BEZik gabe), eta Industria eta Turismo Ministerioak dirua ordaintzen duenean kontratua sinatzea.

## **7. AURIZKO FRONTOIKO TABERNAREN ENERGIA ERAGINKORTASUNA HOBETZEKO OBREN ESLEIPENA.**

Irigaray Oses alkateak hartu du hitza eta jakinarazi du, behin proiektuan jasotzen diren frontoiaren isolamendua eta eraginkortasun energetikoa hobetzeko lanetarako eskaintzak aztertu ondoren, Kontratacio Mahaiak Leache eta Bengotxeak aurkeztutako eskaintzak aztertu dituela, eta ikusi dela eskaintzarik onena Bengotxea S.L.rena dela, eta azaroan zehar egingo direla obrak. Proiektu hau EH Bilduren eta Geroa Biren zuzenketarekin finantzatzen da, 2025eko Nafarroako Aurrekontu Orokoretan onartua Epe barruan bukatzerik ez dagoela aurreikusita, Jesus Mari Rodriguez despopulazioko zuzendari nagusiak esan du luzapena egongo dela eta ez dela inolako arazorik izango. Era berean, eskerrak eman nahi dizkie zuzenketa beren funtsekin proposatu zuten bi legebiltzar-talde horiei

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez erabaki du Kontratacio Mahaiak aurkeztutako proposamena berreste, eta Construcciones A. Bengotxeari esleitu dizkio pilotalekuaren isolamendua eta eraginkortasun energetikoa hobetzeko lanak, 58.522,00 euroan (gehi BEZa).

## **8. ERROMAKO GALTZADAREN PLAN ZUZENTZAILEA EGITEN PARTE HARTZEKO AKORDIOA**

Irigaray Oses alkateak hartu du hitza eta jakinarazi du joan den irailaren 25ean bilera bat egin zela Cederna turismo elkartearren eta galtzada erromatarra zeharkatzen duten tokiko erakundeen artean, eta bilera horretan Cedernak plan zuzentzailea bat proposatu zuela gai historiko hori garatzeko. Udalak Aranzadi Zientzia Elkartea aspalditik egiten ari den lana azpimarratu zuen, eta proiektua sozietate horrek kudeatzea adostu zen.

Proiektuarekin bat egiteko adostasuna Cedernari helaraztea erabaki da aho batez.

Gai zerrendatik kanpo eta udalkide guztiak ados egonik, honako gaia sartu da.

#### **9.- 2025eko PLANTILLA ORGANIKOA BEHIN BETIKO ONARTZEA.**

Irigaray Osés alkate jaunak hartu du hitza eta jakinarazi du plantilla organikoa hasiera batean onetsi zela 2025eko apirilaren 7ko bilkuran eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela, 2025eko ekainaren 30eko 129. zenbakian, eta ez dela alegaziorik aurkeztu. Udalak erabaki du aho batez 2025eko plantilla organikoa behin betiko onartzea. Hona hemen:

#### ***2025eko PLANTILLA ORGANIKOA***

##### ***Lanpostuen zerrenda***

##### ***Funtzionarioak***

Lanpostua: zerbitzu anitzetako langilea: Plaza kopurua: 1. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Euskara. Hizkuntza eskakizuna B2. Maila: E. Lan egoera: jardunean. Mailako osagarria: 15%. Lanpostuko osagarria: 15,77%. Lanaldi osoa.

##### ***Izenen zerrenda***

Zerbitzu anitzetako langilea. Jesus Roman Pedroarena Etulain.

Euskara. Hizkuntza eskakizuna B2.

##### ***Langile finkoak.***

Lanpostua: ofizial administraria. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Euskara. Hizkuntza eskakizuna B2. Maila: C. Lan egoera: jardunean. Mailako osagarria: 12%. Lanpostuko osagarria: 28,35%. Lanaldia 28,56%.

Lanpostua: ofizial administraria. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Euskara. Hizkuntza eskakizuna B2. Maila: E. Lan egoera: jardunean. Mailako osagarria: 12%. Lanpostuko osagarria: 28,35%. Lanaldia 28,56%.

Lanpostua: zerbitzu anitzetako langilea: Plaza kopurua: 1. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Maila: E. Lan egoera: jardunean. Mailako osagarria: 15%. Lanpostuko osagarria: 8,77%. Lanaldia 35%.

Lanpostua: Euskara teknikaria. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Hizkuntza eskakizuna C1. Maila: B. Lan egoera: jardunean. Lanpostuko osagarria: 20%. Lanaldi osoa.

##### ***Lan-kontratudun finkoak:***

Ofizial administraria Anabel Erneta Erro:

Ofizial administraria María José Garralda Zubiri.

Zerbitzu anitzetako langilea. Cristina Carra Garcia

Euskara teknikaria: Teresa Iribarren Larrea:

Orreaga eta Erroibarko Udalekin bateratutako zerbitzuak.

Lanpostua: Idazkaria: Plaza kopurua: 1. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Euskara Hizkuntza eskakizuna C1. Maila: A. Lanpostuko osagarriak: 40%. Bateraezintasuna 35%. Lanaldi osoa.

#### ***Administrazio lan araubidean kontratatutako langileen izen-zerrenda:***

Ezcurra Irure, M<sup>a</sup> Soledad. Bitarteko idazkaria: Egoera: jardunean. Antzinatasuna: 2012ko ekainaren 11

### **10.- ASKOTARIKO INFORMAZIOA**

Irigaray Oses alkateak hitza hartu du eta honako informazioa eman du:

#### **Bestak**

Ekainaren 20tik 24ra herriko jai nagusiak ospatu ziren. Giro ona eta herritarren partehartze handia izan ziren ekitaldi ezberdinetan aipagarrienak. Gazteen inplikazioa eskertu, eta bereziki beren lanarekin jaiak aurrera atera zituzten maiordomoena.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Ikastolaren itxiera**

Joan den ekainaren 22an eskola ixteko ekitaldi bat egin zen, eta bertan gure ikastolari lotutako ikasle, ikasle ohi, irakasle eta irakasle ohiak parte hartu zuten. Hainbat ikasle ohiak parte hartu zuten ekitaldian, eta familia-argazki bat atera zuten. Argazki hori herritarrei nola zabaldu erabaki behar dugu

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Frontoiko argiteriaren dirulaguntza.**

Nafarroako Gobernuak ukatu egin du Josta-Leku pilotalekuko argiteria aldatzeko Udalak eskatutako 21737 euroko diru-laguntza, egoera txarrean dagoelako eta argiteria berdeago baterantz joateko. Udalak beste diru-laguntza bat lortzeko lan egingo du, beharrezkoan den jarduera hori egiteko

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Loteak esleitza**

Joan den uztailaren 4an esleitu ziren etxerako egur loteak udaletxeen egindako zozketa bidez. Guztira, 52 esleitu dira: 27 zurgilearekin eta 25 zurgilerik gabeko modalitatean.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Euskara ikasteko dirulaguntza**

Bigarren urtez argitaratu du Udalak helduen euskara ikasteko diru-laguntza. Guztira, 3 eskaera izan dira, eta horiek esleitzeko aztertuko dira.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Pirinioko Mahaia**

Pirinioetako planari lotutako Nafarroako aurrekontu orokorrak prestatzen ari dira, eta, iaz bezala, lehen sektorea, etxebizitza eta zaintzak bultzatzeko partiden aldeko apustua egin da. Aurrekontua iazkoa baino handiagoa izango dela aurreratu daiteke, beraz, Pirinioetako Planari bultzada berri bat emango zaio.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **1525 zikloa**

Amaitu da aurtengo otsailaren 1etik irailaren 21era garatu den Auritz 1525-2025 proiektua. Azpimarratzeko da parte-hartze handia izan dela proiektuan aurreikusitako ekintza guztiak, baita parte-hartze soziala eta tokiko historia berreskuratzea eta balioan jartzea ere.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **JTPH**

Helmugako Turismo Jasangarritasun Planean aurreikusitako jarduerak amaitu dira, Kultur Etxearen inguratzalea hobetuta. PSTD “PIRINEO” hori neurri txikiagoan gauzatzen ari denez, eta gelditzen diren fondoak aprobetxatzea aurreikusten denez, hobekuntza-neurriak planteatuko dira kultur etxeen, hala nola ateen hobekuntza, argiztapena eta berokuntza. Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Udako langileak**

Udako hilabeteetan zehar Udal honentzat lan egin dute Lidia Urtasun Beaumontek, NUPeko Sustraiak programaren barruan, idazkaritzako laguntzaile gisa, eta Markel Pedroarena Garraldak, zerbitzu anitzetako enplegatu gisa, langabetuen programaren barruan. Bi pertsonei egindako lanak eskertzea eta etorkizuneko lan-kontratuetarako zorte ona opatzea.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Aurizberriko mugak**

Datorren larunbatean, urriaren 11n, Aurizberriko kontzejuarekin batera, bi herrien arteko mugak berrikusiko dira, eta Udalbatzaren ordezkaritza batek parte hartuko du. Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Lindusko sasi-garbiketak**

Joan den irailaren 17an, ZIBUR SLko Pablo Erroren deia jaso nuen, ekitaldi honetako Baso Jarduketen proiektuan sartutako belar-sastrakak garbitzeko lanen esleipenduna, lan horiek egitea ezinezkoa izango zitzaiola jakinarazteko. Aukera desberdinak baloratu ondoren eta gauden datak kontuan hartuta (usategien denboraldia), berarekin adostu da obra datorren urtean egitea, hitzartu zen baldintza ekonomiko berdineta, Udal honentzako kostuen gehikuntzarik ekarri gabe.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Bertsozale Elkartea**

Joan den urriaren 4an 2025eko Nafarroako Bertsolari Txapelketa hasi zen Auritzen eta Udalak 900 euroko laguntza eman zuen.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Palestina**

Pasa den irailaren 6an, Udalbatzak, Gernika-Palestina plataforma bat eginez, elkarretaratzea deitu zuen Palestinako herriaren alde eta Israelgo estatua egiten ari den genozidioaren kontra. Aukera hau baliatu nahi dut genozidioa berriro gaitzesteko eta

palestinar herriari babesa adierazteko eta giza eskubideak aldarrikatzeko, osoko bilkuran egin zen bezala.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Zalduako seinaleak**

Aranzadi Zientzia Elkarteak egindako indusketa-kanpaina emankorraren ondoren, irailaren 12an bilera bat egin zen Nafarroako Gobernuko Arkeologia Atalarekin, aurriak finkatzeko, eta hirigunetik aztarnategiraino seinaleak jartzeko aprobetxatuko da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Feriak**

Irailaren 21ean iraileko feria egin zen eta bertan herriko abeltzainek parte hartu zuten. Parte-hartze handia izan zen, nahiz eguraldi txarra egin. Bukaeran abeltzainek eta udalbatzak bazkaria izan zuten.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Berdintasun Zerbitzua**

Udalbatzako kide batzuk berdintasun zerbitzuko teknikariarekin bildu gara, zerbitzuan sartzeko baldintzak, bertan garatzen diren ekintzak eta bertan parte hartzeko aukera ezagutzeko. Gaia aztertuko da, eta hurrengo ohiko bilkuran eztabaidatuko da zerbitzu horretan sartzeko proposamena.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Hitza eman zaio Irigaray Gil zinegotziari eta honakoa esan du:

Irigaray Gil zinegotziak hartu du hitza eta Echeverri Tapia arkitektoarekin egindako gestioen berri eman du, kultur etxeko eszenatokiaren atzealdea isolatzeko, horretarako soberakina baitago. Irigaray Oses alkate jaunak erantzun du eraikineko argiak berritzeko aukera ere badagoela, eta batzordeari proposatuko zaiola pilotalekuko argiak berritzea, energia-eraginkortasuna hobetzeko.

### **10.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez daude.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 20:30ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.